

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### **Ingurugiro Gaietarako Ikastegia erakunde autonomoari Zabalganeko hiri baratzeen zerbitzua kudeatzeko gomendioa egitea**

2014an, baratze komunitarioen espazio bat moldatu zuen Gasteizko Udalak Zabalgana auzoan, herritar talde eta erakundeek baratze zaintza- eta gizarte-jarduerak gauza zitzaten bertan. Horrelako espazioak auzokideen artean kudeatzeko eredu berri bati ekin zitzaion proiektu horrekin.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) udal erakunde autonomoa, ingurumenaren alorreko informazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatu eta bultzatzeko zereginen baitan, horrelako baratze zaintza-ekimenak bultzatzen ari izan da lehendik, hiri-garapen iraunkorraren, aisialdi aktiboaren eta elikadura osasungarriaren aldeko elementuak izaki.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak esperientzia eta bitarteko egokiak izategatik, udalak berari egin zion Zabalganeko hiri baratzeak kudeatzeko gomendioa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urtarrilaren 23an hartutako erabakia tarteko.

Egun, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean dago aurreikusita aukera hori, honela baitago jasota 11. artikuluan: "Administrazioko organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko organoen edo entitateen gomendio utz daitezke, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago."

11. artikulua horren 2. puntuan honela dago jasota: "Kudeatzeko gomendioak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendioa eman duen organoaren edo erakundearen ardura izango da gomendioan emandako jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea"

Gomendioa gauzatzuz, IGIk hiriko kultur elkarte eta erakundeen eskura utzi zuen ekipamendua deialdi publiko baten bitartez, bertan baratze zaintzan aritu zitezten, eta, Zabalortu Kultur Elkarteak kudeatu du, gaur arte.

Kudeatzeko gomendioaren eta aipatutako elkarte horrek lursaila erabiltzeko zuen baimenaren indarraldia amaitu direlarik, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zerbitzu teknikoek egokitzat jotzen dute herritar elkarte baten bidez kudeatzeko formula errepikatzea.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak esperientzia eta bitarteko egokiak dituela kontuan izanik, ekipamendu horren kudeaketa berriz ere IGIri emateko eskatu dio udalari ikastegiko lehendakariak.

Aipatzekoa da lursaila xede horretarako egokitzeko obrak amaitu zirenean, ekipamendu berria Ondasun eta Eskubideen Inbentario orokorrean sartu zela — I-4733 zenbakiarekin, Zabalganeko hiri baratzeak" izenarekin eta "jabari publiko-erabilera publiko" izaera juridikoarekin—. Hori dela eta, inbentario erreferentzia hori duen ekipamendua izango da kudeatzeko gomendioaren xedea, beste lau urterako, erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Adierazitako guztia kontuan izanik, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera ondarearen alorreko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio:

Lehena: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari (IGI) udalak Zabalgana auzoan dituen hiri baratzeak kudeatzeko gomendioa egitea. Baratze horiek "Zabalganeko hiri baratzeak" I-4733 inbentarioko lursailean kokatuta daude eta 'jabari publikoa - erabilera publikoa' izaera juridikoa dute.

Bigarrena: Zabalganeko baratzeak esleitzeko deialdia egingo du Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak, eta txostena eta proposamena udalari helaraziko, eta orobat egingo du baratzeen erabileraren jarraipena, egokitzen jotzen dituen jarraibideak emango, eta sortzen den edozein gorabehera udalari jakinaraziko, baldin eta udalak edonolako erantzukizunak eskatzea ekar balezake dena delako gertaerak.

Hirugarrena: Kudeatzeko gomendio hau, berariazko ordenantza eta administrazio publikoen ondareari buruzko araudia aintzat harturik egingo da kudeaketa.

Laugarrena: Kudeatzeko gomendioa epea lau urterako izango da, erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 20an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**